

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Lehen master class-a Amir Muhammad-ekin `Punto de Vista´ Nazioarteko I. Mintegiaren barnean

*Sánchez de Muniáin kontseilaria izan da saio akademikoen irekiera-  
ekitaldian*

Jueves, 23 de febrero de 2012

Gonbidatutako zinegileei zuzendutako atzera begirako proiektzioen ostean (atzero, otsailak 22ean hasi zen), Punto de Vista Mintegiak gaur goizean, 10:00etan, lehen master class-a burutu du Amir Muhammad zuzendari malaisiarrekin. Ondoren, Muhammad eta Sylvain Georgerekin eztabaida bat zabaldu da "Saiakerako Zinema eta Konpromisozko Zinema"-ren inguruan. Arratsaldean, parte-hartzaileek bi zuzendarien lan batzuen proiektzioekin gozatu ahal izango dute, eta proiektzio horiek jendearentzat zabalik ere izango dira.

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilari Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jauna izan da gaur goizean Punto de Vista Mintegiko saio akademikoen irekiera-ekitaldian. Bertan 79 profesionalak parte hartzen dute, eta haietatik 66 ikus-entzunezko sektorekoak dira eta beste 29 ikasle unibertsitarioak. Kontseilariak INAACeko arduradunek egindako ahalegina eskertu du; izan ere, "muga ekonomikoak izan badituzte ere, Punto de Vista Lehen Mintegi hau arrakastatsua izaten ari da oso, bai izena eman duten pertsonakopuruagatik, bai eta master class-ak egin behar dituzten hizlarien kalitate handiagatik ere".

Ikus-entzunezko Arteetako eta Zinemtografiaren Nafarroako Institutuko zuzendari Koldo Lasa eta Punto de Vista Mintegiko zuzendari artistiko Josetxo Cerdan izan dira, baita ere, master class-aren aurreko irekiera-ekitaldi honetan.

Aurreratu genuenez, programak otsailaren 24an jarraituko du Sylvain George-rekin egingo den master class-arekin eta bi zinegilerekin egingo den ondorengo eztabaidak "larrialdizko poetikak" izango du hizpide. Arratsaldean, beren bi film emango dira eta 20:00etan jendea zabaldutako (sarrera doan) X Films Proiektuaren beste edizio bati ekingo



Mintegiaren saio akademikoen irekiera-ekitaldiko irudia.

zaio; bertan aurten gonbidatutako hiru zuzendariak egindako lan batzuk aurkeztuko dira (Oskar Alegría, Diana Toucedo eta Jorge Tur), eta baita Usue Arrieta nahiz Vicente Vázquez-ek osatutako WEAREQQ kolektiboaren Goitik Behera, Behetik Gora pieza ere, X Films 2011koa.

Larunbatean, otsailak 25, X Films 2012ko proiektuak aurkezten jarraituko da. 13:00ean, mintegiari amaiera emango zaio film baten proiektioarekin.